

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA

**Badator Korrika
Eskoriatzara /08**

KULTURA

**Tomas Rubioren
margolanak /09**

LEINTZ GATZAGA

**Emakumeen Eguna
'Sorginak' en eskutik /10**



ARTIZARRETIK ARETXABALETARA

SEBASTOPOLEKO TITIRITEROAK, GAUR, 18:30EAN, DURANA KALEAN

GUARDIAKO FARMAZIA

ZAPATUA, 12
FRAILE. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99

DOMEKA, 13
FRAILE. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK	
Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
KZGunea	943 79 94 44
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxiko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Taxi geltokia	943 77 12 64
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALTAINGOA
Arrasate

LARRIALDIAK
SOS Deiak

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan: 19:30

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Zapatutan: 18:30
Lanegunetan: 08:00

BASERRI AUZOETAN: LARRIÑO
Domeketan: 12:30

MENDIOLA
Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

GELLAO
Domeketan: 11:30

OHARRAK

SEBASTOPOLEKO TITIRITEROAK
Venus Attack kale-antzerkia eskainiko dute Sebastopoleko Titiriteroek gaur, egubakoitza, 18:30ean.

HERRI BATZARRA
Herri batzarra egingo du Aretxabaletako Batasunak bihar, zapatua, 11:00etan, kultura etxean.

TOKIKO AGENDA 21EN GAINEKO HITZALDIA
Tokiko Agenda 21 eta Udalalde 21 Debagoiena aurkeztuko dituzte martxoaren 15ean, martitzena, 19:00etan, udaletxeko ganbaran.

KORRIKA
Korrika pasatuko da eguaztenean, martxoak 16. 4. orrian-egitaraua.

ARANTZUKO ERROMESALDIRAKO AUTOBUSA
Autobusa antolatu du Parrokiak martxoaren 19an Donostiako Elizbarrutiak Arantzazura egingo duen erromesaldira joateko. Sakristian eman behar da ize-na, eta 8,50 euro ordaindu.

PILATES IKASTAROA
Gorputza eta adimena zaintzeko pilates ikastaroa antolatu du Zainduz zentroak. Apirilaren 4an hasiko dituzte eskolak, eta 36 euro balioko dute. Martxoan matrikulatzen denari merkeago egingo diote, 15 euro.

LORAMENDIRENAGENDA

KORRIKAKO MATERIALA
Gaur, egubakoitza, Korrikako materiala jarriko dute salgai Durana kalean, kale antzerkiak iraun bitartean. Korrika laguntzaile izateko txartelak eta afarira joateko txartelak ere izango dituzte.

DEMOAK ETA ZUZEN
Demoak eta Zuzen taldeen gainean berba egiteko hitzaldia antolatu dute. Martxoaren 17an izango da, 19:00etan, udaletxe zaharrean.

ORAINDELA 13URTEARETXABALETAN

**Iturriondon
175 zuhaitz
landatu
zituzten**

Guztira 175 zuhaitz eta 75 zuhaixka landatu zituzten Arkarazora bidean dagoen Iturriondo izeneko maldan. Landatutako espezieetatik 30 bertakoak ziren, haien artean gorosti dotoreak. Ingurumen batzordearen proiektua izan zen, eta Foru Aldundiko dirulaguntza jaso zuen.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Liraindu"

lirain bihurtu.
— *Len potolua zan baiña ziero lirainduduta dago.*



LIBURUTEGIKOTXOKOA



XOLA ETA ANGELITO
Bernardo Atxaga
Erein, 2004
47 orrialde

Holaxe bizi da Xola saileko hiru-garren liburua da. Xola, artzain txakur hiztuna, eta bere jabea, Grogo jauna, lagun baten base-rirra doaz oporretan. Bertan Angelito ezagutuko du, bera bezalako baina txikiagoa den txakur baserritarra. Angelito sagu bat harrapatzeko irrikan dago, eta Xolak laguntza eskainiko dio arazo handi hori konpontzeko. Orduan ezagutuko du gazta Xolak.

Umorez betetako kontakizuna da, hitz egiten duten txakurren burutazio eta pasadizo xelebreekin. Valverderen marrazkiak bikainak dira.

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

Adi!

EKAINAREN 7tik AURRERA
**Zorion agurrak
ASTELEHENEKO
GOIENKARIAN!**

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Gainera...


**Zorion agurrak,
SMS bidez!**

Senitarteko, lagun, ezagun edo gustuko duzun neska/mutila bere urtebetetzean zoriondu nahi baduzu, **Asteleheneko Goienkaria-k** beste aukera bat emango dizu: SMSa bidaltzea.



**Kalitate goreneko
estalketa elektrolitikoak**

MIRVAT. Elkarte kooperatibo mugatua
Aingeru Guarda pasealekua 41
ESKORIATZA
943 71 45 06 Faxa: 943 71 50 05
www.mirvat.com



MIRVAT

ATREBENTZIAEZPADA/ Badakitzu Korrika datorrela hurrengo astien? Egingo dozu takarraran?



BIXEN MEABE
12 urte

Bai, jakin bai, baiñe ez dakit urtengo doten. Lehen Korrika Txikixen ibiltzen nitzen, baiñe oin DBHn nabil eta guk ez dou parte hartzen. Korrika gabien dator, eta ez dot uste urtengo dotenik.



ANE AZKARATE
4 urte

Bai, Korrika Txikixen takarraran egitten urtengo dou ikastolatik. Kamiñotik fan-go gare takarraran *Hemen dator Korrika* kantetan doun bittartien. Jokuek eta buruhandixek be badauz.



JOANES BASTARRIKA
13 urte

Bai, eta uste dot eskola-kuok urtengo doule pasetan danien. Oin dala bi urte, Korrika Txikixen ibilli gizen, baiñe aurten ez, aurten haundixekin batera urtego dou gabien.



MIREN UGARTE
11 urte

Bai, eta badauket parte hartzeko asmue. Eskolakuekin egingo doun ekintzaz gain Korrikan gure neuen urten, baiñe gabien dator eta badakit zein izengo dan gurasuen erantzune.



ASIER ZUBIZARRETA
12 urte


Bai, baiñe ez dakit urtengo doten. Korrika Txikixen ez dou parte hartzen DBH-kuok, eta bestien ez dakit. Iguel permisue eskatuko dutziet gurasuei lagunekin batera urteteko.



JAQUELINE MUÑOZ
16 urte

Bai, baiñe ez dakit urtengo doten, seguru asko ohien egongo naz. Gaiñera, azterketekin nabil oin. Hori bai, lagunekin berba egin eta danok urtetie pentsetan badou urtengo dot.

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK ITSUEK IRAKURTZEKO MODUAN Etxe berriak eta plaza berria daukagu herrian: Iralabari plaza. Oraindik bizilagun gutxi dago bertan, eta ingurua txukuntzen dabilta. Etxe berriok, baina, badute berrikuntzarik; atarteetako zenbakia itsuek irakurtzeko moduan jarri dute, hau da, braille eran. Txirrinak, gainera, gurpildun aulkian doanak jotzeko moduan daude. Ez dago gaizki. /M.A.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

Korrika batzordea

Eguaztanean, hilak 16, pasatuko da Korrika guretik. Korrika batzordeak gertu dauka egitaraua.

ASTEAN BEHIN /05

Tokiko Agenda 21

Tokiko Agenda 21 eta Udaltalde 21 aurkezteko hitzaldia egingo dute martitzenean, hilak 15.

KIROLAK /06

Herritarrak squashean

Bost aretxabaletar hasi dira Squash Txapelketa jokatzeko. Apirilean bukatuko dute txapelketa.

ASTEKODATUA

59

TXIRRINDULARI IBILI ZIREN TRIALSIN PROBAN

Joan zen domekan egin zuten Gipuzkoako Trialsin Txapelketa hirugarren proba. 59 txirrindulari etorri ziren. Askok aretxabaletarrak izan ziren eta bostek dominak jaso zituzten.


BESTEKEKESANA

Oso pozik nago. Anoetan golen bat egiteko zain denbora luzean egon naiz eta azkenean heldu da.

Valeryrekin eta Rossatorekin egin dut berba, eta falta botatzen utzi didate. Azkenean ondo aterata da guztia. Kosta egin zait baloia ikustea. Atezainak ukitu artean ez nekien zer gertatzen zen. Izugarriko poza hartu dut. Momentuan ez dut ezer sentitu, baina gero bai, momentu hau heldu bitartean jasandako guztiarengan pentsatu dut. Niretako oso garrantzitsua da futbol jokalarik sentitzea eta barruan egotea. Gainera, golari esker partidua irabazi dugu; hori da garrantzitsuena. Hiru puntuek beheko postuetatik urrunduko gaituzte, eta ea domekan puntu gehiago lortzen ditugun.

JOSE JAVIER BARKERO
'El Diario Vasco' /05-03-03

HERRITARRENBERBAK/ Jon Molina



Negua

Gizakion ahalmek eta indarrak neurrikerik ez dutela dirudien aroa bizi dugu. Gure aiton-amonentzat pentsa ezinak ziren hamaika aurrerapen arruntak iruditzen zaizkigu: Itsaso menderaezinari eta haize mugagabari elektra indarra ateratzeko gai gara aspaldi; gizon-emakumeok sortutako tresna bat, berriz, "Cassini-Huygens" izeneko sunda, Saturnoren satelite-rik handiena den Titanen dabil, hango eguratsa eta baldintza fisikoak aztertu nahirik; eta badirudi, ADNaren sekuentzia deszifratu geroztik, biziaren misterioak ere ez duela guretzat sekreturik gordetzen. Olinpoko jainkoei sua lapurtu zien Prometeo zaharra bizi da oraindik, eta lapurreta hura ez zen ezer izan gero etorriko zirenen ondoan.

Noizean behin ordea, ahalguztidun izatearen ametsetik esna gaituzten, Prometeoren mitoak bigarren zatia duela gogorarazten digu izadiak. Greziar heroia- ren balentria ez zen, ez, ordainik gabe gelditu.

Dena den, alderdi hauetan jainkoei ez dute aparteko ahaleginik egin behar. Nahikoa da negua negu izatea hain "moderno" den gure bizitza estiloa hankaz gora jartzeko. Ipar haizearen hotza eta diputazioaren geldotasuna elkartzen direnean gure "aurrerapen" guztiak lotsagarri gelditzen dira. San Prudentziotik Aretxabaletara etortzea Marko Polorena baino abentura luzeagoa gertatu zaie gure bailarako ehunka lagunni. Dena kontrolpean daukagula sinisturik bizi garela, izotz plaka batek geure onetik aterata gaitzake; elurte

zoro batek egundoko kaltea egin diezaiokete gure autoestimuarri. Honek guztiak, beharbada, zenbait galdera egitera bultzatzen gaitzake: ez gure apalagoak izan behar? Ez ginateke izadiaren kontra bizitzetik naturarekin batera bizitzera pasa behar? Lurraren indarra gurea baino handiagoa dela onartuta, ez genioke errespetu gehiago erakutsi behar? Horrela eginez, eta diputazioak gatz gehiago botata, osasunaren onuran izango litzateke.

"San Prudentziotik Aretxabaletara etortzea Marko Polorena baino abentura luzeagoa gertatu zaie ehunka lagunni"

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Mirari Altube

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Zuriñe Velez de Mendizabal

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Itsaso Berezibar

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
55-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
2.700 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaureritzako Kultura Saila



Gipuzkoako Foru Aldundia



Aretxabaletako Udala



Eskoñatzako Udala



Leintz Gatzagako Udala



M. J. Aretxaga

Kirol kontuak

Eguzkixek daukou nobedade azken aldixen, eta aste hontan nehikue lan egin dusku. Ondiokan eguntxo batzuk falta die udabarrireko, baiñe itxura baten bagoiez negue atzien izten. Bilddurre emuten dust Pello Zabala galdekietiek, zer esango ete dusku Aste Santuetarako.

Hori bai jentie hasi da kirola egitten eta gorpuzte zaindu guran. Ikusi besteik ez dau zenbat ikastaro eta kirol kontu dabitzen egunotan: Pilates metodue dala, yoga kontuek diela, spinning dalako hortara be gero eta jente gehixau faten dala esan dustie. Kirolarixek, baiñe, domekan bizikleta gainien ibilli zienak. Trenbidetik pasau nintzen eta a zelako gauzak egitten zituzten. Ez dakit dohain berezirik biherko dan horretarako, baiñe ordu batzuk sartu biherko dittue entrenetan. Dorletako Ama Txirindulari Taldekuek be egin euien aurkezpena zapatuen, eta geratu barik ibilliko die hemendik aurrera. Animo aretxabaletarrei, ia saririk ekarten duskuen.

Martitzenien emakumion egune izen zan. Zelebrau zeuien zueik? Nik gure bai. Lagun batek ezin euela, bestiek umiekin egon biher... Urtien behin eukiko biher dan moduko atxekixie jai hartzeko, eta jai!

ELKARRIZKETA

LEIRE LARDIZABAL ETA LARRAITZ IÑURRATEGI/KORRIKA BATZORDEKO KIDEAK

“Afarria antolatu dugu eguaztenerako, Korrika datorrenerako girotuta egoteko”

MIRARI ALTUBE

Badator Korrika, eguaztenean hain zuzen. Eguna bera gertatzeko eta Korrika kulturala antolatzeko hainbat lagun ibili dira lanean. Loramendi Euskara Elkarte kide Larraitz eta Leire koordinatzaileak izan dira.

Korrika batzordea osatu duzue lan egiteko. Zeintzuk zaudete batzordean?

Deialdi zabala egin genuen gura zuen guztia hurrera zedin, baina azken urteotan talde berberetako ordezkariak elkartu izan gara. Hona aurtien egon diren taldeak: UDA, Kilometroak 2005, Gazte Ekimena, Kultura Batzordea, Ezker abertzalea, Muru Alde elkarte, Arizmendi ikastola, Aralar, Udal Euskaltegia, Murruxo ME eta Aretxarte dendarien elkarte. Korrika Txikia antolatzen, ostera, beste lantalde bat elkartzen gara, ikastetxeetako ordezkariak osatutako lantaldea: Pausoka, Basabeazpi, Kurtzebarri eskola eta Almen.

Eta Loramendi Euskara Elkarte koordinatzaile lanean dabil?

Bai, hala da. Izan ere, ni—Leire—Arrasateko AEKn nabil lanean, eta hango lankideak oso lanpetuta dabilzanez neuri eman zidaten Aretxabaletako Korrika batzordearen ardura.

Zein da Korrika Batzordearen eginbeharra?

Korrikarekin zerikusia daukan guztia aurrera eramatea Aretxabaletan: Korrika kulturala, Korrika lagun ekimena, Korrika laguntzailea, eta, noski, Korrika datorren eguna bera antolatzea.

Korrika kulturala egitarauan zer antolatu duzue?

Gaur, egubakoitza, kale antzerkia egongo da Sebastopoloko Titiriteroen eskutik. Udaleko Kultura Sailak lagundu digu antzerki taldea ekartzen. Bitartean, Korrikako materiala jarri-



MIRARI ALTUBE

ko dugu salgai Durana kalean, eta Korrika laguntzaile izateko txartelak eta eguaztenerako afarirako txartelak ere egongo dira. Domekan, martxoak 13, ostera, Ibarra futbol zelaian jokatu dituzten partiduetan Korrikaren gaineko

propaganda egingo dugu, Korrika datorrela aditzera emateko.

Korrika datorren eguna ere antolatuta izango duzue.

Bai. Arratsalde partean ikastetxeetako umeak izango dira protagonista, eta euren dako egita-

raua egin dugu. Ilunkeran, alboak eta bertsoek lagundutako txikiteoa egingo dute animatzen diren guztiek, eta gero afarria Basabe jatetxean.

Zela doa kilometroen salmenta?

Arrasateko AEKn saldu dituzte, eta egia esateko ez dakigu. Atzo izan zen kilometroak erosteko azken eguna, eta orain, erositakoen artean testigua zela banatu erabaki beharko dugu gure batzordean.

Zelako parte-hartzea espero duzue, Korrika gauean datorrela jakinda?

Handia, zalantza barik, eta herritar guztiak, handi zein txiki, animatzen ditugu parte hartzera. Hala, afarria antolatu dugu eguaztenerako, Korrika datorrenerako girotuta egoteko. Gaueko hamaiketan etxetik atera behar duenari gehiago kostatuko zaio la pentsatuta jarri dugu afarria.

Izan ere, gaueko hamaikak aldera dator Korrika gurera. Ezta?

Bai, hala da. 22:50 inguruan sartuko da Aretxabaletako lurretan Untzillatik bueltan, eta 23:10 inguruan aterako da Eskoriatzarantz. Korrika bukatutakoan, gainera, txokolate beroa emango dugu udaletxe zaharrean. Basotxoko kideek egingo digute.

Badator Korrika gurera ere!

Martxoaren 16an, eguaztana, pasatuko da Korrika guretik. Hona Korrika batzordeak egun horretarako antolatu duen egitaraua:

- 15:30etik 16:00etara: Korrika txikia. Musika eskolatik aterako dira ikastetxeetako umeak eta Herriko Plazan bukatu.
- 16:00etatik 17:30era: Tailerrak eta jokoak Herriko Plazan.
- 17:30etik 18:00etara: Buruhandiak udaletxe zaharretik aterata.
- 18:30etik 19:00etara: Kalejira musika

eskolako ikasleen laguntzarekin.

- 19:00etatik 20:30era: Txikiteoa albokaren doinuekin eta bertsolarien laguntzarekin.
- 20:30etan: Afarria Basabe jatetxean.
- Txartelak 10 euroren truke daude salgai: Azkena tabernan, Arluten eta Loramendi EEn. Erroste azken eguna, bihar, zapatua.
- 22:45 inguruan: Korrika sartuko da Aretxabaletan Untzillatik bueltan.
- 23:15 inguruan: Txokolate beroa udaletxe zaharrean.

SANER

ITURGINTZA

Nafarroa 8, 2-A
ARETXABALETA
943 79 64 91
605 71 66 92 / 629 47 72 70

ANDRA MARI
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea 3
ARETXABALETA
Tel. 943 79 29 26

Jou Diaz

Karakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

L. GONZALEZ
PINTURAK

Pintura orokorra eta enpapelatua

Araba ibilbidea 24, 3-D
ARETXABALETA
686 113 581 / 943 79 65 46

TOKIKO AGENDA 21/ Herritarren partaidetza ezinbestekoa da aurrera eroan ahal izateko

Garapen iraunkorraren gaineko berbaldia egingo dute martitzenean

MIRARI ALTUBE

Zer da Tokiko Agenda 21? Eta Udaltalde 21 Debagoiena? Gehienok jakin ez arren, herritarren etorkizuna erabakiko duten gaiak jasotzen dituzte. Horren berri emateko berbaldia egingo dute martitzenean, martxoak 15, 19:00etan, udaletxeko ganbaran.

Modan dauden berbak dira Tokiko Agenda 21. Aretxabaletako Udalak, gainera, aurrera eramateko konpromisoa dauka hartuta. Baina badakigu zer dagoen berba horien atzean?

INGURUMENA BAINO GEHIAGO

Ingurumenarekin lotzen dugu Tokiko Agenda 21, baina oker gaude. Etorkizunarekin dago lotuta, garapen iraunkorrean oinarritutako etorkizunarekin. "Garapen iraunkorra egungo beharrak asetzeko gai den garapena da, hurrengo belaunaldiek beren beharrak asetzeko duten gaitasuna arriskuan jarri gabe" dio 1987an Nazio Batuek hartutako erabakiak. Horrela bada, hiru zutabe ditu iraunkortasunak: ingurumenaren errespetua eta babesa; berdintasuna eta giza justizia; eta garapen ekonomiko orekatua. Etxebizitzak, mugikortasuna, hondakinak... hori guztia eta gehiago batzen ditu Tokiko Agenda 21ek. Aurrera eroateko, baina, herritarren konpromisoa ezinbestekoa da. Izan ere, geuk erabaki behar dugu zein eratako herria gura dugun.



ARTXIBOA

Zein eratako herria gura dugun zehaztuko du Tokiko Agenda 21ek.

UDALAREN KONPROMISOA

Tokiko Agenda 21 aurrera eramateko Udaltalde 21 Debagoiena osatu zuten. Talde honetan daude Debagoieneko mankomunitatea, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia eta ibarreko udalak. Aurreko agintaldian hartu zuen Aretxabaletako Udalak garapen iraunkorraren gaineko prozesua aurrera eroateko konpromisoa. Sentsibi-

lizazio kanpainarekin hasita dago, eta Udal teknikari eta politikoak jakinararen gainean daude. Orain herritarrei aurkeztu behar diete, eta hala egingo dute martitzenean, hilak 15. Aurkezpenarean eredu eta esperientzien berri emango dute, eta eztabaidarako aukera egongo da, herritarrek zeresan handia daukatelako prozesu honetan.

LABUR

Argentinako eta Kubako lagun bi egongo dira Hiruatxek antolatutako kafe tertulian

Eguaztenean, martxoak 16, kafe tertulia egingo du herri pobretuei laguntzen dien Hiruatx elkarteak. Argentinatik etorritako Rene Heraldo Irurtzun eta Kubako Odalis Rey Neira elkartuko dira euren herrien gainean berba egiteko. Gure herria zela ikusi duten azalduko diete hurreratzen diren aretxabaletarrei. Iritziak eta ikuspuntuak trukatuko dituzte egingo duten solasaldi-lasaian, eta kafea eta pastak izango dituzte lagungarri udaletxeko ganbaran, eguaztenean, 19:00etan.

TXUTXU-MUTXUA



Izara morea emakumearen egunean

Emakumearen Nazioarteko Eguna izan zen martitzenean, martxoak 8. Ez zuten ekitaldi berezirik antolatu egunerako, baina aurreko astean hitzaldia egin zuen Anuntxi Aranak. Hori bai, emakume taldeak urtero jartzen duen izara morea jarri zuen Herriko Plazan, inori ez ahazteko zein egun zen. Arratsaldean, Arrasateko emakumeekin egin zuten bat, eta hainbat aretxabaletar hurreratu ziren bertako manifestaziora. /M.A.



Propaganda
EGUZKIGRAF
inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com



BEIRALAN
KRISTALDEGIA

**Markoztatze profesionala
prezio ezin hobean!**

Herriko plaza 8, behea • Aretxabaleta
943 79 81 78 / 670 997 274



**Angelines
AUTOZERBITZUA**

**Frutan eta txarkuterian
espezialitatea**

Mitarte 16 • 943 79 61 42
ARETXABALETA



**Kixkur
ILEAPAINDEGIA**

Solarium bertikala
Ile-luzatzeak
Estetika zerbitzuak

Loramendi 11. Tel.: 943 79 90 79. ARETXABALETA



FUTBOLA

UDAko alebin mailako futbol taldea eskualdeko ligako txapelketa da

Domekan Gipuzkoako Txapelketa jokatzeko hasiko dira beste txapelketa batzuekin

M.A.

Eskualdeko ligako txapelketa da Aretxabaleta Kirol Elkarte-ko alebin mailako futbol taldea. Domekan, Gipuzkoako Txapelketa jokatzeko hasiko dira, eta beste eskualde batzuetako txapelketak izango dituzte aurrez aurre: Lengokoak, Antiguoko eta Tolosa.

Santi Moralesek eta Aitor Irurek entrenatzen duten taldea eskualdeko txapelketa da, liga oraindik bukatu ez badute ere. Denboraldi bikaina egin dute; jokatuak sei partiduak irabazi dituzte eta 26 gol egin. Eurei, ostera, lau besterik ez dizkiete sartu, eta Eibar eta Elgoibar talde entzutetsuei irabazi diete.

Orain Gipuzkoako Txapelketa jokatzeko hasiko dira, eta bes-



Domekan hasiko da jokatzeko Gipuzkoako Txapelketa alebin mailako taldea.

te eskualde batzuetako txapelketak izango dituzte aurrez aurre: Lengokoak, Antiguoko eta Tolosa. Bi

buelta izango dituen liga erara jokatu dute, eta domekan izango dituzte lehenengo partiduak.

Trialsin proba ikusgarria egin zuten domekan eguraldiaren laguntzarekin

Bost aretxabaletarrek jaso zuten domina Gipuzkoako Txapelketako hirugarren proban

M.A.

Eguraldiak zer egingo zain egon ziren antolatzaileak, baina azkenean arazo barik jokatu zuten Gipuzkoako Txapelketako trialsin proba. 59 jokalariek etorri ziren, horien artean asko aretxabaletarrak, eta hauetatik bostek dominak jaso zituzten.

Joan zen domekan egin zuten trialsin proba kanposantu inguruan. 15 ibilbide gertatu zituzten antolatzaileek, sei trenbide inguruan eta bederatzirekin Porruxotxara basoan. Aurreko egunetan egindako elur eta eurien ondorioz lurra oso biguna zegoen eta lokatz artean ibili ziren txirrindulariak.

Guztira 59 lagun hurreratu ziren proba egitera, asko aretxabaletarrak. Markel Uriarte biga-



Ikusleak harriruta geratu ziren bizikleta gainean zuten abilezia ikusita.

rrena izan zen infantil mailan; Aitor Murua ere bigarrena izan zen alebin mailan, eta neskei dagokionez Oihana Aldaik eta Ariane

Unanuek jaso zituzten dominak. Benjaminetan Asier Zunzunegik irabazi zuen. Urretxun izango dute hurrengo proba, domekan.

SQUASHA

Bost aretxabaletar dabilta joan zen astean hasi zen kirol etxeko Squash Txapelketan

Hasi dute Squash Txapelketa kirol etxean, eta bost aretxabaletar dabilta norgehiagokan: Iban Dasilva, Iñaki Uribebarria, Juan Antonio Varilla, Aimar Leibar eta Asier Valle. 12 jokalariek dira guztira, eta talde bi egin dituzte antolatzaileek. Liga erara hasi dira jokatzeko, eta hala egingo dute apirilaren 16a bitartean. Apirilaren 22an eta 23an final-laurdenak jokatu dituzte onenek, eta apirilaren 29an finalerdia. Txapelketa apirilaren 30ean bukatuko dute finala jokatu. Partidu guztiak kirol etxean jokatu dituzte, eta emaitzak Debagoieneko txapelketa zirkuiturako puntuagarriak izango dira.

KARATEA

Karate erakustaldia egingo dute bihar, zapatua, kirol etxean Karate eskolako kideek

Karate eskolako kideek ohitura daukate karate erakustaldiak egiteko kurtsoak aurrera egin ahala, eta bihar, zapatua, egingo dute, 18:00etan. 6 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoei orain arte ikasitako guztia erakutsiko diete kirol etxera hurreratzen diren guraso, senide eta lagunei. Odilo Vazquez da Karate eskolako irakaslea, eta haren esanetan oso garrantzitsuak dira erakustaldiok gaztetxoek indarra hartu eta ez nekatzeko. Maiatz inguruan, ostera, Azkoitian egingo duten txapelketara joateko asmoa daukate Aretxabaletako karate jokalariek.

XAKEA

Mailari utsiko dio Arlutzek, eta lasai jokatu du liderraren aurka azken partida

Galduta egin zuten Errenteriako Fomento Beraun taldearen aurka aretxabaletarrek joan zen astean, 3-1. Errenteriako jokalariek onak izan zituzten aurrez aurre, eta puntu bakarra lortu zuten. Bihar, ostera, denboraldiko azken partida jokatu dute Arlutz Xake Taldeko kideek Santa Kurtz kaleko lokalean. Liderra, Donostiako Gros taldea, izango dute aurkari, talde oso indartsua. Dena dela, lasai hartuko dute partida, galduta ere mailari utsiko diotelako. Sailkapeneko bosgarren postuan dago Arlutz taldea, eta galduta gero zazpigarrenera pasatuko litzateke. Mailaz jaitsiko direnak, osterara, azken hirurak izango dira.

PARTIDUAK

FUTBOLA

UDA-Touring

Preferentea.

Domeka. 16:30. Ibarra.

Arizm./UDA-Allerru

Lehen mailako gazteak.

Zapatua. 15:30. Ibarra.

PILOTA

Bergara-Aretxab.

Bigarren mailako nagusiak.

Zapatua. 18:00. Bergara.

Aretxab.-Azkoitia

Lehen mailako nagusiak.

Zapatua. 11:00. Azkoitia.

EMAITZAK

FUTBOLA

Zarautz 0 UDA 0

Preferentea.

UDA 3 Anaitasuna 1

Gazteen ohorezko liga.

Amaikak Bat 9 UDA/Arizm. 2

Lehen mailako gazteak.

UDA/Arizm. 6 Amaikak Bat 2

Lehen mailako kadeteak.

Ikasberri 0 UDA/Arizm. 1

Bigarren mailako kadeteak.

Añorga 4 UDA/Arizm. 1

Infantil ohorezko maila.

UDA/Arizm. 3 Hernani 2

Infantil txiki.

Tolosa 2 Almen/UDA 0

Emakumeen liga.

Almen/UDA - Urola -

Emakumeen F-8 liga.

PILOTA


Udaberri Pilota Txapelketa

Aretxab. -Ordizi-

Lehen mailako nagusiak.

Aretxab. -Lazkao -

Bigarren mailako nagusiak.



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren 3
Aretxabaleta
Tel.: 943 77 11 76



FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea
ARETXABALETA
Tel.943 77 00 33/79 42 56

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Mortin
erloju-denda

Bere bezeroen
zerbitzura

Mitarte 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABALETA



LURRINDEGIA
OPARI DENDA

Mitarte 18 • 943 79 38 59
ARETXABALETA

ERRETRATUZHARRA

Ezkondu aurreko bazkaria

Oraindik eguntxo batzuk geratzen zaizkigu udaberrian sartzeko, eta eguzkiak ez du askorik berotzen. Hala ere, hori ez da aitzakia ez ezkontzeko, eta ezkongaiak hasi dira elizak eta epaitegiak betetzen. Ezkondu aurretik, baina, agur bazkaria edo afaria egin behar. Lehen ere halaxe egiten zuten, eta erretratuan ageri den mutil koadrilak agur bazkaria egin zion Jesus Mari Bengoari, 1966an. Dotore jantzi ziren gero bazkarirako, alkandora zuria, trajea eta korbata ia guztiek. Bazkaria Burgales jatetxean egingo zutela ez daukagu zalantzarik; izan ere, Rosarito eta Dorita jatetxeko jabeak ageri dira mutilen artean. Bazkaldu bakarrik ez, a zelako parranda egingo zuten ostein... Herriko Plazako eskaileretan atera zioten erretratua koadrilari bazkalostean, batek baino gehiagok dauka-eta purua eskuetan.

Goiko ilaran, ezkerretik hasita: Inazio Jauregi, Gregorio Garai, Jesus



Berasaluze, Jesus Mari Bengoa, Manolo Zubillaga, Jose Inazio Bengoa, eta Jose Luis Urkiola.

Bigarren ilaran: Anjel Inurrategi, Pedro Mari Larrinaga, Felix Mari Antxia, Jose Luis Aretxaga, Jose Antonio Arenaza (aurrean) Jose Antonio

Elortondo eta Jose Antonio Azkoitia.

Hirugarren ilaran: Bonifazio San Migel, Jose Juan Zubizarreta (eskoria-tzarra), Maximo Urkia, Diego Gartzia, Luis Agirre, Roberto Aldalur, Rosarito Artze, Pedro Urtzelai eta Inazio Lopez de Uralde.

Laugarren ilaran: Tomas Iturrikastillo, Dorita Artze, Remigio Gastañaga, Alberto Arkauz, Jose Mari Elkoro eta Jose Luis Gorostiaga.

Argazkia: Ramon Mari Elkoro
Informazioa: Ramon Mari Elkoro

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Kaminerokua baserri inguruak

Orainsu bota dute Bedarretako San Migel auzoan zegoen Kaminerokua baserria. Oso egoera eskasean zegoen, aspaldian hutsik eta inolako kasurik egin barik. Etxebizitzak egingo dituzte orain haren lekuan. 20 izango dira guztira, eta Eusko Jaurlaritzak alokairuan emango die hainbat aretxabaletarri. Zozketa iaz ekainean egin zuten.



≈ 2000

Hutsik eta egoera eskasean zegoen Kaminerokua baserria azken urteotan. Udalak Eusko Jaurlaritzari eman zion.



2005

Baserria bota ostean etxebizitzak egiten hasiko da Eusko Jaurlaritzak. 20 izango dira, eta 50 metro koadrotik 70era bitartean izango dituzte.

Expres

Santakurtz 16
943 79 23 43

J.J. IRURE
ITURBENTZAN

URA
GASA
KALEFAKZIOA

MITARTE, 15
ARETXABALETAKO

943 793 187

Jauregi Okindegia

Otalora 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABALETAKO

IRIARTE

Umeen denda
Helduen lentzeria

Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETAKO

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETAKO
Tel.: 943 79 01 28

Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2005eko martxoaren 11 / 201. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Korrika eguazten gauean iritsiko da, eta hainbat ekimen antolatu dituzte

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Korrika Txikia igaroko da herritik eguazten arratsaldean; ondoren, pailazoen txanda izango da. Txikiteoa ere egitekotan dira eta Korrikari ongietorria egin aurretik afaria egingo dute Toki Alai tabernan. Festa giroan ospatuko dute, beraz, eguna eskoriatzarrek.

Martxoaren 16an, eguaztena, igaroko da Korrika 14 Eskoriatzatik; antolatzaileen esanetan 23:30ak inguru iritsiko da. Hala ere, egunean zehar hainbat ekitaldi egingo dituzte herrian.

Arratsaldean hasiko dituzte ospakizunak. 15:30ean Korrika Txikia kalerik kale joango da eta herriko ikastetxeetako ikasleek esku hartuko dute bertan; 16:15ak inguru Herriko Plazan emango diote amaiera. 17:00etan, berriz, Patxin eta Potxin pailazoez ikuskizuna eskainiko dute plazan bertan.

18:30ean hasita triki-bertso txikiteoa izango da, eta korrika egitera joan aurretik afaria ere izango dute aukeran eskoriatzarrek Toki Alai tabernan. Jai giroan egingo diote ongietorria, beraz, aurtengo Korrikari.



ARTXIBOA

Aurreko urteetan ere ekimen ugari antolatu zituzten Korrika herritik igaro zenean.

KORRIKA LAGUNTZAILE

Bestalde, asteburuan Korrika laguntzaile egiteko aukera egon zen Eskoriatzan. Axtroki elkarteak Herriko Plazan mahaia jarri

zuen. 12 euroren truke laguntzaile egin, pin bat eskuratu eta Euskal Herriko 300 saltokitan erosketak egiteko beharpen txartela eskuratu zuten lau lagunek.

Oraindik, baina, aukera dago laguntzaile txartela egiteko. Axtroki elkartera edo Tortolis ludotekara jo beharko dute horretarako interesatuek.

Korrika Txikia, pailazoak, txikiteoa eta afaria eguazteneko egitarauan

Lau eskoriatzarrek egin zuten Korrika laguntzaile txartela asteburuan

Laguntzaile egin gura dutenek Axtroki elkartera edo Tortolis ludotekara jo beharko dute



Arrakasta izan zuen Virginia Imazen Abuela ikuskizunak

Oihulari Klown taldeko kidea den Virginia Imazek emanaldi arrakastatsua eskaini zuen martitzen arratsaldean Ibarraundin. Martxoaren 8a ospatzeko Amuskak eta Udalak antolatutako kontakizun saiora jende ugari gerturatu zen eta jauregiko aretoa lepo bete zen. Ez du sarritan egin *Abuela* ikuskizuna bergararrak. "Nire amonaren bizipenen berri ematen dut", eta Virginiak gutxitan kontatu ditu jendaurrean horiek. Jendeak gustura entzun zituen hala ere. /Z.V.M.

LABUR

Zabalik udaleku irekietan lan egiteko izenematea

Aurtengo udan herrian egingo dituzten udaleku irekietan lan egin gura dutenek izena eman dezakete dagoeneko. Horretarako, curriculumak kultura etxera eraman edo kultura@eskoriatzeta.net helbidera bidali behar dira.

Epea apirilaren 1ean amaitzen da; hala eman du aditzera Kultura Sailak. Lanpostuak begirale edo zuzendari izateko dira. Beraz, lehenbailehen bidali curriculumak 2005eko udaleku irekietan parte hartu gura duzuenok.

MARTXOAREN 20RA ARTE EGONGO DA IKUSGAI ARRASATEKO HARRESI ARETOAN

Hogeita bederatzi lanez osatutako erakusketa ireki du Tomas Rubiok

Z.V.M.

Urte mordo daramatza Tomas Rubiok margotzen. Paisaiak izan ohi dira bere lanen protagonistak. Martxoaren 4an erakusketa ireki zuen Arrasateko Harresi aretoan. Aurretik, Arrasaten bertan, Gasteizen, Oñatin eta beste euskal txoko batzuetan ere erakutsi ditu lanak.

Orain dela 45 urte etorri zen Tomas Rubio Roy Eskoriatzara bizi izatera. Zaragozan bizi izan zen ordu-ra arte, eta hemen oso gustura dagoela aitortzen du. Olio pinturak egitea atsegin du, eta martxoaren 4a ezker bere lanak erakusgai ditu Arrasateko Harresi aretoan. Azken erakusketa honetan hogeita bederatzi lan jarri ditu jendaurrean, bi urteko lana.

Paisaiak margotzen ditu batez ere Tomasek. Arana kaleko estudio batean margotzen du normalean Royk. "Ahal dudanean, baina, kanpora joatea gustatzen zait", eman du aditzera eskoriatzarrak. "Inguruko paisaiak izugarri atsegin ditut", gaineratu du.

Paisaiak nagusi dira bere lanean, baina natura hilak ere margotzen ditu

PAISAIK NAGUSI

Ahal duenean paisaiak margotzen joaten da. "Atsegin dut urtegi inguruak margotzea", adierazi du. Hala, Urkulu eta Landa ageri dira, esaterako, bere lanetan. "Baina Debagoieneko beste toki asko ere margotu ditut", azaldu du. Hala ere, paisaiez gain pintzela hartu eta natura hilak ere irudikatzen ditu.

Lan bakoitza egiten zenbat denbora igarotzen duen ez daki zehatz artista eskoriatzarrak. "Zenbait faktoreren arabera izaten da; mihisearen neurriaren eta zer margotzen dudaren arabera lanaren iraupena aldatu egiten da", eman digu aditzera. "Ordu asko behar izaten ditut orokorrean".



Artista eskoriatzarrak herriko zenbait toki ere margotu ditu bere lanetan.

ERAKUSKETA

Hilaren 20ra arte dago ikusgai Royren erakusketa. "Zabaldu genuenetik jende asko joan da ikustera, eta oso pozik nago".

Astegunetan 18:00etatik 20:00etara eta zapatu eta domeketan, berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara irekitzen dute Arrasateko aretoa.

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udalzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK

Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

AMUSKAREN AFARIA

Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatuko dute Amuskako lagunek bihar. Gure Ametsa jatetxera joateko autobusa 21:00etan, autobus geltokitik.

KIROLA

Euskal Ligako partidua bihar, zapatua, 16:00etan. Eskoriatza KE Ibaizabal taldearen aurka. 18:00etan berriz, bigarren mailako saskibalo partidua. Eskoriatza KE Lizarrako CB Oncineda taldearen aurka.

GURASO ESKOLA

Dolu egoerak familian. Guraso Eskolak bi saiotan landuko du. Aldaketa bat egon da. Antolatzaileek jakitera eman dute martxoaren 15 eta 17an -martitzen eta eguenean- emango dituztela eskolak, 18:00etan, kultura etxean.

IPIUIN KONTAKETA

Peio Añorgak bibliotekan ipuin kontaketa saioa eskainiko du eguenean, hilak 17, 18:00etan.

Literatura Asteak bidaiia izango du hizpide aurten

Z.V.M.

Astelehenean hasita Literatura Astea egingo dute HUHEZIn; aurtengoa zazpigarrena izango da. Bidaiak hizpide hartuta hainbat hizlarik hartuko dute parte ekimenak iraungo duen bost egunetan. Azken egunean, egubakoitzean, ikasleak izango dira eguneko saioko gidariak.

Datorren astean VII. Literatura Astea egingo dute Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Martxoaren 14tik 18ra bitartean egingo da eta *Literatura eta Bidaiia* izango da gaia.

Martitzenean aurkeztu zuten jendaurrean. Bertan esku hartu zuten Matilde Sainz Hezkuntza lerroko zuzendariak, Maider Otamendi Kultura zinegotziak eta Arantza Ozaeta Hizkuntza irakasle eta Literatura Astearen antolatzaitzaileak.

Interesa duten guztiak har dezakete parte Literatura Astean. Lehenengo lau egunetan sei hizlarik egingo dute berba, eta azkeneko egunean fakultateko ikasleek gidatuko dute saioa. "Egun kutunena izango da egubakoitzekoa. Komunikazio eta Informaziorako Giza Zientziak ikasten dabiltzanek emandia eskainiko dute".



Martitzenean aurkeztu zuten Literatura Astea Eskoriatzako fakultatean.

bedardenda

Tel.: 943 71 43 27
ESKORIATZA

DORILETA

Aranburuzabala 22, behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 20

TOKI ALAI TABERNA

Karajiloetan espezializatua

Tel.: 943 71 47 29
ESKORIATZA

LENIZ, C.B. KONPONKETAK

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

Aingeru ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza

JAI GIROAN OSPATU ZUTEN EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Ederto igaro zuten hogeita hamar 'sorginek' euren omenez zapatuan egindako bazkarian

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Zapatuan ospatu zuten Leintz Gatzagako hogeita hamar lagunek Emakumeen Nazioarteko Eguna. Jai giroa nagusi izan zen bazkarian, eta, besteak beste, jokoak egin zituzten eta dantzatzeko aukera izan zuten. Eta aurtengo bidaia nora egin erabaki zuten.

Zapatuan, martxoak 5, Leintz Gatzagatik Gure Ametsa jatetxera igo zen emakume talde bat. Hogeita hamar lagunek Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko data aurreratu eta martitzenean beharrean orduan ospatu zuten egun berezia.

Mahai luzearen inguruan eseri ziren emakumeak, gazte eta helduak, guztiak batera. Bazkari goxoa zuten zain eta guztiz ase arte jateko aukera izan zuten. "Ederra zegoen guztia", eman zuten aditzera eguneko protagonista guztiak.

Garrantzitsua da Leintz Gatzagako emakumeentzat egun hori ospatzea. Izan ere, "adin guztietako

ko lagunak batzen gara urtero, eta momentu dibertigarriak igarotzen ditugu".

BAZKALOSTEA

Bazkal ondoren ekimen ugari egin zituzten. Jokoak, esaterako. Berrikuntza izan da aurten jolastea. "Urtero gauza bera egiten genuenez, gauza berri bat sartu gura genuen egitarauan", eman dute aditzera antolatzaileek. "Hala, abestu eta laranjekiñ jolastu genuen, esaterako. Oso pozik gauden emakume taldekoak, erantzun bikaina eman genielako eguneko ekintzei". Ez ziren hor amaitsu eguneko ekintzak.

ISUSKIAK BANATZEN

Ohiturari jarraituz hiru isuski banatu zituzten zapatuan. Bazkalostean izan zen eta zozketa bidez eman zizkieten erratzak hiru *sorgini*. Ez dira zozketan sartzen aurreko urteetan saria eskuratu dutenak; horregatik, geroz eta emakume gutxiago geratzen dira isuskia lortzeko. "Hamaika ziren oraindik isuskirik ez zuten emakumeak, eta zozketaren ondoren zortzi bakarrik geratzen dira", adierazi du Amaia Olabek.

Amaiak banatu zituen zenbakiak, eta, zozketa egin ondoren, banaka eman zien sarituei euren saria. Aurten Mari Carmen Arana, Dorleta Elkorobarrutia eta

Ainara Zubillagak jaso dute merezitako isuskia.

Ohitura dutenez, hirurek dantza egin zuten gainerako taldeki-deen begiradapean; pasodoblea dantzatu zuten hiru gatzagarrek. Ederto mugitzen direla erakutsi zieten han bildutakoek.

URTEKO BIDAIA ETA YOGA

Bazkariak bapo jateaz eta dantza egiteko aukera emateaz gain, hamabosgarren bidaia nora egin erabakitzeak aukera ere eman zuten. Bi aukeraren artean erabaki zuten *sorginek*. Iparraldera edo Zamorara joateko proposamenak zeuden mahai gainean. Azkenean, Zamora bisitatzea erabaki zuten. Maiatzean joango dira.

Bestalde, yoga ikastaroari buruz ere egin zuten berba zapatuan. Orain arte herriko hainbat emakumek esku hartu dute eta aurrerantzean ere jarraitzeko asmoa dutela eman zuten aditzera. Hala ere, orain, irakasleak ahal duen ikusi beharko dute. Askotarako aukera eman zuten, beraz, zapatuko bazkariak.

Zortzi 'sorgin' geratzen dira bakarrik banatzen duten isuskia eskuratzeko

Maiatzean egingo dute bidaia emakumeek; Zamora bisitatuko dute



Tertulian egin zuen bazkal ostean emakumeek.



Trikitilarien doinuekin dantza ere egin zuten.



Isuskia heldu eta pasodoblea dantzatu zuten zozketako irabazleek.



Pozik zeuden guztiak zapatuan Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzen.

LABUR

Jose Ramon Perez GOITBko Debarri saioan egon zen

Martitzenean, Jose Ramon Perez alkatea eta Jon Sasiain zinegotzia GOITBko Debarri saioan egon ziren. Askotariko gaiak izan zituzten ahotan.

Besteak beste, aurtengo aurrekontuko inbertsio handienari buruz hitz egin zuten. Asmoa herriko saneamendusarea aldatzea da. Kaleak ireki eta hoditeria aldatu beharko litzateke, esaterako. Ahalgina egingo dute lanak aurten hasteko; hala eman zuten aditzera Udaleko bi ordezkariak.

Eskiatzera joango dira GURELeko lagunak asteburuan

Azkenean ere, joango dira asteburu honetan eskiatzera Guraso Elkarteko lagunak. Hogei pertsona inguru joango dira Candanchu aldera. Batzuk gaur egubakoitza irtingo dira eta beste batzuk bihar joango dira eskiatzera. Autoz egingo dute bidaia eta domekan itzuliko dira Leintz Gatzagara.

Aurreko astean jakin zuten lo egin behar zuten tokia itxita zegoela, eta egubakoitzean bilera egin zuten GURELekoek. Beste toki bat aurkitu dute lo egiteko.

Txirrindulari eskolak lau talde aurkeztu ditu

Asteburuan, Dorletako Ama Txirrindulari Eskolak aurtengo denboraldiko taldeak aurkeztu zituen Gatzagan. Goizean izan zen ekitaldia.

Lau talde aurkeztu zituzten bertan. Lehenengo, baina, lore sorta eraman zioten Dorletako Amabirjinari.

Ondoren, Toki Eder elkartera jaitsi eta txirrindulari eskolak aurten lau talde izango dituela eman zuten aditzera aurkezpen ekitaldian. Kadete, infantil, alebin eta mendi bizikletako taldeak osatu dituzte aurten.

Jon Urrutia kideak aditzera eman zuenez, ez da erraza adin horietako txirrindulariak aurkitzea, eta taldeak osatzeko nolabaiteko zailtasunak izan dituztela aitortu zuen. Hala ere, pozik agertu zen aurtengo taldeekin. "Guraso askok euren semeak errepi-dean ibiltzea arriskutsua dela uste dute eta ez dituzte kirol hori egitera animatzen", esan zuen Urrutiak. Horregatik, gazte jendea animatu gura du bizikletara igo eta kirol horretan barneratzera.



HARMAILATIK

Debagoieneko kirola Goiena Telebistan



**Ikusiko
duzu!**

Astelehenetan

21:00ean eta 22:00ean GOITBn

Aurkezlea: Julen Iriondo

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada
giro!



Matikua jatetscea

Azata auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

H A I Z E A



Kafetegia eta taberna

Mitarte z/g • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 60

IOSU
harategia taberna



- Urdaitegia-gozotegia
- Kroasantegia
- Gertatutako janariak

Mitarte1 • Tel.: 943 77 03 08

Mirrentxu



Hidalga 10
Eskoriatza. 943 71 41 67

AKEITA
Taberna

Pintxoak eta ogitartekoak

Santa Ana 23
Tel.: 943 71 50 94
ESKORIATZA

ZARAIA
taberna

Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 95

IBARRA JATETXEA

- menua
- karta
- plater konbinatuak
- bokatak



Araba ibilbidea 29 • TEL.: 943 79 18 03

BASABE

Menuak eta afariak



Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 79 91 84

LAGUNAK

DASTALEKU

Tel. 943714063

Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8. ESKORIATZA

Taberna Berri



gatzamenuak
preziositateak

Durana 26, ARETXABALETA. 943 79 20 67

TABERNA

ARLUTZ

Gustuko musika

Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

Dorleta
taberna

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8
ARETXABALETA
Tel.943 79 94 15

ORLY

Herriko plaza
943 79 09 33
ARETXABALETA

HIRUSTA JATETXEA

Zatoz gure sukaldeia ezagutzera



Aretz

Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Hanbursesak
- Pizzak
- Oilaskoak eta paellak eramateko

